# Atabal

AVRIL-AOÛT | APIRILA-AGORRILA

2017



Scène de Musiques Actuelles de Biarritz
Biarritzeko Gaurko Musiken Eszena

# Le mot de la Présidente Lehendakariaren hitza

Vous avez peut-être vu cette vidéo d'un festival qui se déroule ainsi : d'abord des gens assis dans un grand pré par petits groupes clairsemés à l'heure de la sieste. Un homme se lève et se met à danser seul sans se laisser impressionner par les regards qui se tournent vers lui. Son bonheur communicatif et sa chorégraphie interpellent. Un deuxième danseur se joint à lui. Puis d'autres viennent et finalement tous se lèvent. Mais ce n'est que le début de la scène et pendant trois longues minutes, des dizaines puis des centaines de festivaliers se précipitent par grappes. Ils entrent dans le champ de l'image sans discontinuer jusqu'à former une foule dansante.

Cette vidéo sur Youtube est devenue l'illustration pour beaucoup de ce qu'est le début d'un mouvement, d'une manifestation, d'une démarche collective. Le courage n'est pas seulement dans l'action de celui qui se met à danser seul, mais aussi dans l'attitude des premiers à le rejoindre et à reconnaître donc de la valeur à ce qu'il fait. C'est eux qui font que le marginal devient leader. Ce sont eux qui transforment la donne en un élan collectif. Et le leader ne joue son rôle que si il accepte les autres comme des égaux. La naissance d'une dynamique collective en dépend.

À l'heure où un magnifique Skatepark devient le voisin d'Atabal, où beaucoup souhaiteraient un nouvel événement annuel dans lequel les Biarrots et le territoire se reconnaissent, on se prend à penser que Atabal - avec son conseil d'administration, son équipe, ses utilisateurs - est parmi ces premiers danseurs. On se prend à espérer que les associations, les collectifs et divers acteurs du territoire se réuniront pour œuvrer ensemble à la création d'un événement fédérateur, qui nous rassemble et nous ressemble.

Sylvie Claracq
Présidente d'Atabal
Déléguée à la Jeunesse et à la Vie Scolaire de Biarritz

Honela iragaten den festibal baten bideoa ikusi duzue, menturaz. Hastapenean, pentze zabal batean, siesta denboran, jendea talde ttipitan jarririk eta barreiaturik ikus daiteke. Bat-batean, gizon bat zutitzen da eta dantzan hasten da. Inguruko jendeen begiradak ez du gizona lotsatzen. Haren zorion hedakorrak eta koreografiak jendea harritzen du. Orduan, bigarren dantzari bat hurbiltzen zaio. Eta, ondotik, beste dantzari batzuk. Azkenean, pertsona guztiak zutitzen dira. Baina, hau, gertaldiaren hastapena baizik ez da. Hiru minutu luze irauten duen eszenan, hamarnaka eta ehundaka festibalari multzoka biltzen dira. Jarraitasunez, irudian sartzen dira, eta, poliki-poliki, dantzan ari den jendeketa osatzen dute.

Youtuben ikus daitekeen bideo hau jende anitzentzat mugimendu, gertakari, desmartxa kolektibo baten irudia bilakatu da. Adorea ez datza soilik bakarrik dantzan hasten den gizonaren ekintzan, gizonarengana hurbiltzen direnen jarreran datza ere. Izan ere, azken horiek lehen gizonak egin duenaren balioa aitortzen dute. Horiei esker, marjinala dena liderra bilakatzen da. Horiei esker, egoera berezi bat oldar kolektiboa bilakatzen da. Eta, lider gisa aritzen denak, besteak bere heineko direla onartu behar du. Dinamika kolektibo bat sortzeko ezinbesteko baldintza da hau.

Atabalen ondoan skatepark zoragarri bat eraikitzen ari diren garaian, biarriztarrek eta tokikoek beren lekuen ezagutzen segitzeko, jende askok urteko gertakari berri baten beharra sentitzen du. Orain arte, Atabal - administrazio kontseilua, langile taldea, erabiltzaile ezberdinak - lehen dantzari horietarik izan dela pentsa genezake. Oraindik aitzina, elkarrekin lan egiteko eta gure irudira egindako gertakari bateratzaile baten sortzeko, elkarteak, kolektiboak eta lurraldeko eragile ezberdinak elkartuko direla igurika genezake.

Sylvie Claracq
Atabaleko lehendakaria
Biarritzeko Eskolako bizia eta Gazteria arduraduna

*Responsable de la publication* **François Maton** *Argitalpenaren Arduraduna*
*Rédaction - Communication* **Corinne Thion** *Idazketa - Komunikazioa*
*Infographie* **Malvina Hubert** *Infografia*
*Traduction* **Txomin Urriza Luro** *Itzulpena*
*Régie Publicitaire* **Brice Morin 06 04 59 85 07** *Publizitatea*
*Impression* **www.ladinamo.fr** *Inprimatzea*
*Visuel Couverture* **Nicolas Canu** *Azaleko Irudia*
*Crédits Photos* **T. Loustauneau - A. Cazenave - D. Pernaud** *Argazkiak*

**Atabal** 37, Allée du Moura - 64200 Biarritz - 37 Moura karrika
05 59 41 73 20 – www.atabal-biarritz.fr

# VENDREDI 14 AVRIL 21:00 APIRILAK 14 OSTIRALA

# ALLTTA
## + SUMERZ + DSF PARTY

Présenté par **ATABAL** & **DIRTY SOUTH FAMILY**-ek aurkezturik



### ALLTTA
ALLTTA est né de la rencontre de deux personnages du hip hop international: le producteur américain Mr J.Medeiros, MC des fabuleux Procussions et le français 20SYL, du projet Hocus Pocus, producteur et membre de C2C et également producteur et remixeur de Kendrick Lamar, Ed Sheeran, ou Schoolboy Q. La formule est rodée: un mélange innovant de musique organique et électronique du producteur 20syl entrelacé des rimes sophistiquées et philosophiques du rappeur Mr J.Medeiros.

### SUMERZ
Composé de DJ Skillz vs KTDR1 Bass Music, SUMERZ Live est un projet récent qui a déjà su capter l'attention. Ces deux génies fusionnent leurs 20 doigts le temps d'un live Bass music efficace taillé pour la scène, un live aussi impressionnant pour les yeux que percutant sur le dancefloor. Trap, hip hop et éléctro au menu !

**+WARM UP & AFTER:**
**DSF PARTY : DJ PACE + DJ UNEEK**

### ALLTTA
Nazioarteko hip-hop musikan ospetsuak diren bi pertsonek elkar topo egin ondotik, ALLTTA sortu zen. Alde batetik, Procussions taldeko MCa den Mr J.Medeiros ekoizle amerikarra. Bestetik, Hocus Pocus-eko kidea, C2C taldeko kidea eta ekoizlea, eta, Kendrick Lamar, Ed Sheeran edo Schoolboy Q artisten ekoizlea eta erremixlaria den 20syl frantsesa. Musika arras landua da : musika organikoaren eta elektronikoaren nahasketa berritzailea eskaintzen du 20syl ekoizleak, eta, errima landuak eta filosofia-hitzak gehitzen dizkio Mr J.Medeiros rap kantariak.

### SUMERZ
DJ Skillz eta KTDR1 Bass Music bikoteak osatzen du SUMERZ Live. Arrakasta ederra bildu duen proiektu berria da. Zuzeneko Bass music emanaldi eraginkor eta landuan, bi DJ maisuen erhiek miraiak egiten dituzte. Zuzeneko ikusgarria eta zorrotza eskaintzen dute. Trap, Hip Hop eta Elektronika musikak egitarauan !

**+WARM UP & AFTER:**
**DSF PARTY : DJ PACE + DJ UNEEK**

ELEKTRO
HIP HOP

♥♥♥
*C2C*
*Birdy Nam Nam*

17€ / 14€ (adh-kide) en loc-aurretik
20€ / 17€ (adh-kide) sur place-bertan

*©Mathieu Renoult*

# MalOjo







«Mes premiers chocs visuels ont été les couvertures de comics et les vieilles affiches de films d'horreur qui traduisent en une image tous les enjeux du récit qu'elles présentent. Elles sont l'œuvre d'artistes souvent mal connus tout aussi talentueux que des peintres classiques, auxquels j'aime me référer.
Je suis très marqué par les représentations religieuses et mythologiques où souvent le sublime se dispute à l'horreur d'une crucifixion ou d'une décollation, mais tout autant par l'humour parfois cruel d'un «Screwy Squirrel» ou d'un «Road Runner & Will E. Coyote».
Je ne saurais dire si je suis plus fasciné par Bruegel et Bosch que par Tex Avery et Walt Disney, Caravage ou Jack Kirby ; je les ai assimilé et il en ait sorti d'étranges cartoons aux physionomies difformes et aux visages traversés d'horribles cicatrices, ou d'adorables créatures cependant mal intentionnées.»

«Nire lehenengo begi kaskakoak komikien azalak eta beldurrezko filmen afixa zaharrak izan ziren. Izan ere, aurkezten duten kontakizunean jokatzen dena irudi bakarrean laburbiltzen dute. Ezezagunak diren artisten obrak izan ohi dira. Alta, margolari klasikoak bezainbeste talentu dute horiek. Biak hurbiletik behatzen ditut.
Erlijio eta mitologia irudiek azkarki markatu naute. Irudi horietan, ardura, edertasun gorena gurutziltzatze edo lepomozte baten izigarrikeriarekin nahasten da. « Screwy Squirrel» edo «Road Runner & Will E. Coyote» marrazki bizidunen umore krudelak ere azkarki markatu nau.
Ez dakit zeinek liluratzen nauten gehien, Bruegel, Bosch eta Caravage margolariek, Tex Avery eta Walt Disneyren marrazki bizidunek edo Jack Kirbyren komikiek. Oro barneratu ditut. Hala, bineta bitxiak sortzen ditut. Begitarte marketsak eta orbainez betetako aurpegiak irudikatzen ditut, xede tzarreko izaki maitagarriak marrazten ditut.»

**Exposition du Vendredi 21 Avril au Samedi 17 Juin 2017**
**Vernissage Vendredi 21 Avril à 19h**
**+ Café-Concert de Le Grand Chambellan + Luma**

**Apirilak 21 ostiraletik ekainak 17 larunbatera**
**Estreinaldia Apirilak 21, ostiralez, 19:00etan**
**+ Le Grand Chambellan + Luma Kfé-Kontzertua**

## VENDREDI 21 AVRIL 20:00 APIRILAK 21 OSTIRALA



ROCK

I gratuit urririk

# LE GRAND CHAMBELLAN + LUMA

### LE GRAND CHAMBELLAN

Né au Pays Basque, LE GRAND CHAMBELLAN dévoile un rock impétueux et habilement asséné par un duo guitare batterie. Un son de guitare dru et puissant, une rythmique opulente mais jouée au service de compositions influencées par Jimi Hendrix, Motörhead, Black Keys et consorts raviront les mélomanes !!! LE GRAND CHAMBELLAN Euskal Herriko taldea da. Gitarra eta bateria bikotea da. Rock oldartsua eta abila jotzen du. Gitarraren soinua astuna eta indartsua da. Bateriarekin jo erritmoak aberatsak dira. Taldearen kantuetan, Jimi Hendrix, Motörhead, Black Keys eta beste talde batzuen eragina entzun daiteke. Musikazaleak loriatuko ditu !!!

### LUMA

LUMA est un duo rock de Saint- Sébastien. Le son est frais, direct et en demi-teinte. Leur premier EP «Club EP» les a amenés à partager la scène avec des pointures internationales telles que The Bellrays, Siena Root, Belako ou Capsula. Les voici de retour avec un second EP «Airwalk EP», qui démontre l'évolution du groupe qui n'a que deux ans d'âge. LUMA Donostiako bikote rockero bat da, freskoa, zuzena eta nahiko gazi-gozoa. Izen bat jartzea ez da batere erreza. «Club EP» lehenengo erreferentziak Euskal Herriko eta Espainiar estatuko hainbat taulatan jotzera eraman zituen. The Bellrays, Siena Root, Belako edo Capsula bezalako taldeekin aritu dira. «Airwalk EP» estudioko bigarren lanarekin datoz orain. Talde bezala duela bi urte hasi zuten bide honen eboluzioaren ondorioa da.



# Stages Vacances Oporretako Ikastaldiak



## ÉVEIL MUSICAL *3-5 ans*
**Mardi 18 - Vendredi 21 Avril** *10h>11h*
***10€/séance (8€ adhérent)*** Animé par Bolboreta

L'éveil musical permet aux plus jeunes de s'initier au monde de la musique de manière ludique et sensorielle. Jeux musicaux, chant, percussions, construction d'instruments et découverte des musiques du monde sont au programme de cet atelier.

## LEHEN HURBILTZEA *3-5 urte artekoak*
**Apirilaren 18etik 21ra, asteartetik ostiralera** *10:00>11:00*
***Saioko 10€ (8€ kideentzat)*** Bolboretak animaturik

Musikara lehen hurbiltzearen bitartez, haur gazteenek musikaren munduan lehen irakaspenak jasotzeko aukera dute, manera jostagarrian eta sentsorialean. Tailer honen egitarauan, musika jokoak, kantua, perkusioak eta munduko musiken ezagutza badira.



## INITIATION MUSICALE *6-9 ans*
**Mardi 18 - Vendredi 21 Avril** *11h>12h*
***10€/séance (8€ adhérent)*** Animé par Bolboreta

L'initiation musicale fait le lien entre la découverte de l'éveil musical et l'apprentissage d'un instrument. Jeux musicaux, chant, percussions, construction d'instruments et découverte des musiques du monde sont au programme de cet atelier, ainsi que la découverte et la pratique des différents instruments proposés à l'école de musique d'Atabal (guitare, batterie, clavier...).

## LEHEN IRAKASPENAK *6-9 urte artekoak*
**Apirilaren 18etik 21ra, asteartetik ostiralera** *11:00>12:00*
***Saioko 10€ (8€ kideentzat)*** Bolboretak animaturik

Musikara lehen hurbiltzearen eta musika tresna baten ikastearen arteko lotura egiteko balio dute lehen irakaspenek. Tailer honen egitarauan, musika jokoak, kantua, perkusioak, musika tresnen fabrikatzea eta munduko musiken ezagutza badira. Gainera, Rock Eskolan ikasi daitezkeen musika tresna ezberdinak ezagutzeko eta jotzeko parada eskainia da (gitarra, bateria, teklatuak...).



## PEINTURE en MUSIQUE *5 - 11 ans*
**Mardi 18 - Vendredi 21 Avril** *10h>11h / 11h15>12h15*
***10€/séance (8€ adhérent)*** Animé par Franck Cazenave

Franck Cazenave propose des ateliers de peinture pensés comme de véritables workshops où l'expression artistique et la créativité sont à l'honneur. En musique, avec la musique, chaque enfant est mis en situation de créer une réalité visuelle qui lui est propre, en toute liberté !
*Matériel et tablier fournis (veillez à ne pas habiller vos enfants avec vêtements et chaussures neufs).*
*Playlists préparées spécialement en collaboration avec Atabal.*

## MUSIKA ETA TINDUA TAILERRA *5 - 11 urte artekoak*
**Apirilaren 18etik 21ra, asteartetik ostiralera**
*10:00>11:00 / 11:15>12:15*
***Saioko 10€ (8€ kideentzat)*** Franck Cazenave-ek animaturik



Franck Cazenave-ek egiazko workshop batzuen gisako pintura tailerrak eskaintzen ditu. Bertan, adierazpen artistikoa eta sormena ohoratzen ditu. Musikaz lagundurik eta askatasun osoan, haur (edo nerabe) oro nor bere errealitate bisuala sortzeko egoeran jarria da !
*Materiala eta taulier edo mantala eskainiak (ez itzazue haurrak arropa eta zapata berriekin jantzi).*
*Atabalekin elkarlanean, kantu zerrenda bereziak hautatuak izan dira.*

**Renseignements et Réservations Xehetasunak eta erreserbatzeak**
brice@atabal-biarritz.com // 05.59.41.73.29



## ATELIER DJ/MAO *10-17 ans*
**[MUSIQUE ASSISTÉE PAR ORDINATEUR]**
**Lundi 24 - Vendredi 28 Avril** *10h>11h / 11h>12h*
***50€/semaine (40€ adhérent)***
Animé par BOOM TCHACK, labo de création musicale et artistique

Les ateliers DJ/MAO permettent de traverser toutes les étapes de la création de morceaux à partir des composants de la musique électronique.
Les jeunes pratiqueront percussion, mélodie et voix. Ils termineront la semaine par un enregistrement et repartiront avec leur propre CD !

## DJ/OLM TAILERRA *10-17 urte artekoak*
**[ORDENAGAILUZ LAGUNDURIKO MUSIKA]**
**Apirilaren 24etik 28ra, astelehenetik ostiralera**
*10:00>11:00 / 11:00>12:00*
***asteko 50€ (40€ kideentzat)***
BOOM TCHACK-ek animaturik (musika eta arte sorkuntza laborategia)



DJ/OLM tailerrean, musika elektronikoaren osagaietatik abiatuz, kantu baten sorkuntzaren urrats guztiak ikusteko aukera badago.
Gazteek perkusioak, melodiak eta ahotsak landuko dituzte. Astea grabaketa batekin bururatuko dute eta beren diskoarekin joango dira etxera.

**Renseignements et Réservations Xehetasunak eta erreserbatzeak**
brice@atabal-biarritz.com // 05.59.41.73.29



## STAGE GUITARE *(+ 10 ans / Adultes)*
**Lundi 24 - Vendredi 28 Avril**
***(10h>11h Initiation / 11h>12h Perfectionnement)***
***50€/semaine (40€ adhérent)***
Animé par les profs de la Rock Eskola

A partir d'un répertoire de musiques actuelles vous travaillerez la rythmique, l'harmonie et l'interprétation.

## GITARRA TAILERRAK *(10 urtetik goiti / Helduak)*
**Apirilaren 24etik 28ra, astelehenetik ostiralera**
***(10:00>11:00 Iniziazioa / 11:00>12:00 Hobetzea)***
***asteko 50€ (40€ kideentzat)***
Rock Eskolako Irakasleek animaturik



Gaurko musiken errepertorio zabala joz, erritmika, harmonia eta interpretazioa landuko dituzue.

## STAGE BATTERIE *(+ 10 ans / Adultes)*
**Lundi 24 - Vendredi 28 Avril**
***(10h>11h Initiation / 11h>12h Perfectionnement)***
***50€/semaine (40€ adhérent)***
Animé par les profs de la Rock Eskola

A partir d'un répertoire de musiques actuelles vous travaillerez la rythmique, l'harmonie et l'interprétation.



## BATERIA TAILERRAK *(10 urtetik goiti / Helduak)*
**Apirilaren 24etik 28ra, astelehenetik ostiralera**
***(10:00>11:00 Iniziazioa / 11:00>12:00 Hobetzea)***
***asteko 50€ (40€ kideentzat)***
Rock Eskolako Irakasleek animaturik

Gaurko musiken errepertorio zabala joz, erritmika, harmonia eta interpretazioa landuko dituzue.

**Renseignements et Réservations Xehetasunak eta erreserbatzeak**
yann.atabal@wanadoo.fr // 05.59.41.73.22



## BPM#1 - *Nouveauté* -

### ATELIER ÉCRITURE HIP HOP *12 - 20 ans*

### Lundi 24 - Vendredi 28 Avril *10h00>16h30*

***50€/semaine (40€ adhérent)*** Animé par Brass

Brass propose une immersion totale dans l'univers Hip-hop en accompagnant les jeunes sur de l'écriture de chansons au sein des studios d'Atabal. Sur une semaine entière, les jeunes créeront leurs propres textes en explorant ainsi la créativité, la musicalité et le sens du rythme. Le projet se clôturera le vendredi par la découverte de la technicité scratch de DJ Skillz et de la scène hip-hop locale qui jouera pour cette première édition des soirées BPM (Le Bruit Propulse Le Mouvement) à Atabal. Une rencontre sera aussi organisée avec l'artiste Demi-Portion, tête d'affiche de la soirée.

*Lancement de la «Hip Hop Eskola», ateliers d'écriture Hip Hop hebdomadaires dans l'école de musique Atabal, en septembre 2017 !!*




## BPM#1 - *Berritasuna* -

### HIP HOP TAILERRA *12-20 urte artekoak*

### Apirilaren 24etik 28ra, astelehenetik ostiralera *10:00>16:30*

***asteko 50€ (40€ kideentzat)*** Brass-ek animaturik

*Atabaleko estudioetan, gazteekin kantuen idazketa landuz, Brass artistak hip-hoparen munduan osoki murgiltzea proposatzen du. Aste oso batez, gazteek kantuen hitzak sortuko dituzte. Hala, sormena, musikaltasuna eta erritmoa landuko dituzte. Proiektua bururatzeko, ostiralean, Atabalen, DJ Skillz artistaren scratch teknika ezagutuko dute, eta, BPM (Le Bruit propulse Le Mouvement) gaualdien lehen edizioaren karietara, tokiko hip-hop eszenaren ezagutzeko parada ukanen dute. Azkenik, gaualdiko artista nagusia izango den Demi-Portion kantaria kausitzeko aukera izango dute.*

*Lancement de la «Hip Hop Eskola», ateliers d'écriture Hip Hop hebdomadaires dans l'école de musique Atabal, en septembre 2017 !!*



**Renseignements et Réservations** **Xehetasunak eta erreserbatzeak**
brice@atabal-biarritz.com // 05.59.41.73.29



## VENDREDI 28 AVRIL 19:00 APIRILAK 28 OSTIRALA

# BPM #1 : DEMI PORTION
## + BRASS + MASSYB & JASOMA






***Soirée BPM***
*S'ouvrent les soirées «le Bruit Propulse le Mouvement» afin de mettre en avant une scène hip-hop locale en pleine émulation tout en imaginant à chaque concert une rencontre avec un artiste de la scène nationale. Pour cette première session, le rappeur Demi-Portion s'entoure de Brass, Massyb & Jasoma, I-Shence, Dj Skillz et Arsher & Se7h !*

**DEMI-PORTION**
Voilà déjà deux décennies que DEMI-PORTION nous offre son grain de voix particulier, son flow et son accent sudiste. Depuis ses débuts avec les Grandes Gueules, DEMI-PORTION s'inscrit dans la mouvance du rap conscient où son travail est constamment nourri de références à la culture pop, posées sur les réalités d'une génération. Un concert sans demi-mesure pour cet artiste entier, une date à ne pas rater pour découvrir son dernier album sur l'un de ses rares passages dans le Sud-Ouest !

***BPM gaualdia***
*«Le Bruit Propulse le Mouvement» gaualdi berriak abian dira. Emulazio betean den tokiko hip-hop eszena aitzinera ekartzea eta estatuko artista baten ezagutzea da xedea. Lehen saio honetan, Demi-Portion rap kantaria eta Brass, Massyb & Jasoma, I-Shence, Dj Skillz eta Arsher & Se7h agertokian ikusiko ditugu !*

**DEMI-PORTION**
Badu bi hamarkada DEMI-PORTION artistak bere boz berezia, hitz jarioa eta okzitaniako azentua eskaintzen dizkigula. Les Grandes Gueules taldearekin hasi zelarik, berehala, rap kontzientearen munduan murgildu zen. Bere lanean, pop kulturari egin aipamenak aurkitzen dira, eta, erreferentzia horiek belaunaldi baten errealitatearekin lotzen ditu. Itzulingururik gabeko artista da. Hautsi-mautsirik gabeko kontzertuak eskaintzen ditu. Gure eskualdean emango duen kontzertu bakanetarik bat izanen da hau. Azken diskoa ezagutzeko aukera izanen da. Ez ezazue kontzertu hau huts egin !

RAP

*Scred Connexion*
*Youssoupha*

12€ / 9€ (adh-kide) en loc-aurretik
15€ / 12€ (adh-kide) sur place-bertan

*gratuit urririk (adh-kide)*



**SAMEDI 29 AVRIL 21:00 APIRILAK 29 LARUNBATA**

# TOOTS & THE MAYTALS

## + TORTUGA SOUND SYSTEM



**TOOTS & THE MAYTALS**

Considérés comme des véritables légendes du ska comme du reggae, les TOOTS & THE MAYTALS se forment au début des années 60 et c'est le mythique «54- 46 That's my number» qui les propulse en tête des charts.
C'est donc avec toujours plus d'envie que les fans de TOOTS & THE MAYTALS ont attendu la sortie du tout dernier album «Flip and Twist» qui est un véritable retour aux sources: mélodies soul, blues et reggae sur des rythmiques tant traditionnelles que modernes.
Un concert inoubliable en perspective !

**+WARM UP & AFTER:**
**TORTUGA SOUND SYSTEM**

**TOOTS & THE MAYTALS**

Ska eta reggae musikaren talde mitiko gisa kontsideratua da TOOTS & THE MAYTALS. 1960ko hamarkada hastapenean sortu zen taldea. «54- 46 That's my number» kantu famatuak kantu arrakastatsuen sailkapenera ekarri zuen Toots.
TOOTS & THE MAYTALS taldearen zaleek inoiz baino gogo handiagoarekin igurikatu zuten «Flip and Twist» diskoaren kaleratzea. Disko honekin, Toots jatorrira itzuli da. Erritmo tradizionalak eta modernoak nahasten ditu. Soul, blues eta reggae doinuak uztartzen ditu.
Kontzertu ahaztezina hain segur !

**+WARM UP & AFTER:**
**TORTUGA SOUND SYSTEM**

REGGAE

*Burning Spear*
*Jimmy Cliff*

22€ / 19€ (adh-kide) en loc-aurretik
25€ / 22€ (adh-kide) sur place-bertan

## SAMEDI 06 MAI 14:00-17:00 MAIATZAK 06 LARUNBATA




# MASTERCLASS DIEGO TRONCA

## *GUITARE GITARRA*

DIEGO TRONCA vous propose une master class sur le thème du «guitare héros du XXIème siècle».
Fast picking, sweep picking, string skipping, legato, tapping seront au programme.

DIEGO TRONCA artistak «XXI. mendeko gitarra heroiak» gaiari buruzko klase bat eskainiko dizue.
Fast picking, sweep picking, string skipping, legato eta tapping teknikak izango dira aipagai.

*©Clarisse Bouyer*

**Renseignements et Réservations Xehetasunak eta erreserbatzeak**
yann@atabal-biarritz.com // 05.59.41.73.25



JEUDI 11 MAI 19:00 MAIATZAK 11 OSTEGUNA

# TX LIVE

## TOMMY LORENTE & LA CAVALERIE



*L'équipe du stage «Technicien d'exploitation du son» organisé par le GRETA Sud Aquitaine en collaboration avec l'INA et le Lycée René Cassin est fière de vous présenter son concert de fin de stage et faire la démonstration de son savoir-faire.*

**TOMMY LORENTE**

La musique de TOMMY LORENTE s'inscrit dans un registre Pop-Rock, nourrie d'influences diverses, de Tom Petty à Stephan Eicher en passant par Nick Lowe ou encore Warren Zevon. En 2014, TOMMY LORENTE sort son premier album solo «Un Cruel Manque de Tendresse» acclamé par la critique spécialisée internationale et reçoit le soutien de ses pairs. Le nouvel album en préparation sera dévoilé courant 2017.

**+ INGRID COURRÈGES**

**+ LES PROFS DE LA ROCK ESKOLA ATABAL**

*Akitania hegoaldeko GRETA egiturak INArekin eta René Cassin lizeoarekin elkarlanean antolatu «Soinu teknikari» ikastaldiko taldetxoa ikastaldi bukaerako kontzertua aurkezteaz eta bere trebetasunaren erakusteaz harro da.*

**TOMMY LORENTE**

TOMMY LORENTEk pop-rock musika jotzen du. Tom Petty, Stephan Eicher, Nick Lowe edota Warren Zevon artisten eraginak entzun daitezke hor. 2014an, TOMMY LORENTEk «Un Cruel Manque de Tendresse» izeneko bakarkako lehen diskoa argitaratu zuen. Nazioarteko kritikariek eta musikariek lana txalotu eta bultzatu zuten. Orain, 2017an argitaratuko duen disko berria lantzen ari da.

**+ INGRID COURRÈGES**

**+ ROCK ESKOLAKO IRAKASLEAK**

ROCK
POP

I gratuit urririk

greta

# Café Concert Kfe Kontzertua

## VENDREDI 12 MAI 20:00 MAIATZAK 12 OSTIRALA



# *VIB FEST*
## DON'T SAVE THE QUEEN
## + THE DEAD KRAZUKIES
## + THE CRETINS

*A l'occasion du 1er festival VIB organisé par l'association des commerçants de la Zone d'Iraty, Atabal lance les hostilités dès le vendredi soir. S'en suivront durant tout le week-end, des concerts en plein air sur le site au milieu d'expos de voitures, de motos et de nombreuses activités. Irati guneko merkatarien elkarteak antolatutako VIB festibalaren lehen edizioaren karietara, ostiral arratsean, Atabalek asteburuari hasiera ederra emanen dio. Ondotik, asteburu osoan, autoen eta motoen erakusketa gunearen erdian, kanpoko kontzertuak eta jarduera ugari izango dira.*




### DON'T SAVE THE QUEEN

DON'T SAVE THE QUEEN est un trio basé sur la côte Basque composé de Joseba à la basse et au chant, Ñaño à la guitare et aux chœurs et Berdoof à la batterie. Ils définissent leur musique comme rock, sans s'attacher à un style particulier. Ni nostalgique ni futuriste, le rock de DSTQ s'inscrit dans le présent. Ses textes chantés en euskara sont des photographies du quotidien, de l'actualité. Lapurdi kostaldeko hirukotea da DON'T SAVE THE QUEEN. Joseba baxu jotzaileak eta kantariak, Ñaño gitarristak eta koro egileak eta Berdoof bateria jotzaileak osatzen dute taldea. Rocka jotzen dutela diote, musika estilo berezi bati lotu gabe, alabaina. Ez da musika nostalgikoa edota futurista. DSTQ taldearena gaurko rock musika da. Euskaraz abesten du taldeak eta Don't Save The Queen-en hitzak egunerokoaren eta aktualitatearen isla dira.

### THE DEAD KRAZUKIES

Formés en 2010 à Hossegor, THE DEAD KRAZUKIES envoient un punk rock pêchu et énergique dans la pure tradition californienne. Tantôt hargneuse et acérée, tantôt mélodique et entraînante, la musique de THE DEAD KRAZUKIES mélange guitares saturées, batterie explosive et basse métallique. 2010ean, Hossegoren sortu zen THE DEAD KRAZUKIES. Kaliforniako tradizioari jarraikiz, punk rock indartsua eta bizia jotzen du taldeak. THE DEAD KRAZUKIES taldearen musika suminkorra eta zorrotza da batzuetan, melodikoa eta bizia besteetan. Gitarren distortsioa, bateriaren zartak eta baxuaren soinu metalikoa nahasten ditu.



### THE CRETINS

The CRETINS est une évolution néo-Darwinienne de Lee Bonnie Moroni. «Nous ne sommes pas un tribute band, juste une bande d'amis. On joue ce qu'on aime et comme on veut, on se fait plaisir et on aime le partager.» C'est rock, punk, sans artifices. Lee Bonnie Moroni taldearen bilakaera neo-darwinista da The CRETINS. «Ez gara bertsio talde bat. Lagun talde bat gara. Atsegin duguna eta nahi duguna jotzen dugu. Horren partekatzea gustuko dugu.» Apainkeriarik gabeko rock eta punk musika da hau.

PUNK ROCK

gratuit urririk

# VENDREDI 19 MAI 20:00 MAIATZAK 19 OSTIRALA

# HELLFEST WARM UP TOUR

## ONE HELL OF A RIDE

Présenté par **HELLFEST** & **ATABAL** aurkezturik






*« Si tu ne viens pas au Hellfest, le Hellfest viendra à toi ! »*
*L'équipe du HELLFEST arpentera les routes pour son WARM UP TOUR: ONE HELL OF A RIDE avec plusieurs pass Hellfest 3 jours à gagner, de nombreux goodies et un « tote bag » remis à chaque participant !*

**SHOWTIME** a décidé de faire revivre les 80's où les grands classiques du genre hard rock et heavy métal ont vu le jour !

**DJ MIKE ROCK** DJ officiel du Hellfest et seul DJ français rock à poser son set violent et dansant dans le monde entier !

**IF RENAUD WAS A PUNK** Les textes revendicatifs de Renaud collent à la musique punk contestataire, venez voir par vous même en live !

**LEATHER PRIEST** A coup de Flying V, Tapping, Palm Muting, heavy drumming, ils reprennent les classiques du heavy métal 80's.

**IRON FIST** Leurs riffs tranchants s'entremêlent à une rythmique frénétique et une voix explosive, dévastant tout sur leur passage.

*« Aurten, Hellfest-era ez bazoaz, festibala zuregana jinen da ! »*
*Hellfest-eko langile taldea errepideetan gaindi ibiliko da. Hala, WARM UP TOUR 2K17: ONE HELL OF A RIDE ekitaldia aurkeztuko du. 3 eguneko pass batzuk, opariak eta parte hartzaileei eman zakutxoak izanen dira irabazteko.*

**SHOWTIME** 1980ko hamarkada magikoa eta garai hartako talde klasiko eta handi asko berpiztea erabaki du taldeak !

**DJ MIKE ROCK** Mundu osoan rock biniloak jartzen dituen Frantziako DJ bakarra da. DJ emanaldi berezia, indartsua eta dantzagarria eskaintzen du.

**IF RENAUD WAS A PUNK** Renaud-ren kantuak punk estilora ederki egokitu daitezke. If Renaud Was A Punk taldea da horren froga.

**LEATHER PRIEST** Flying V, Tapping, Palm Muting, heavy drumming erabiliz, 1980ko hamarkadako heavy metal klasikoak berriz hartzen ditu taldeak.

**IRON FIST** Gitarra riff zorrotzak, erritmo eroak eta ahots jauzkorrak nahasten dituzte. Edozer gauza suntsitzeko modukoa.

METAL
ROCK

10€ / 7€ (adh-kide) en loc-aurretik
13€ / 10€ (adh-kide) sur place-bertan


USO
POP
FESTIBALA #8
MAIATZAK 27-28 MAI 2017
SARA & LIZARRIETA
TOTORRO . PETIT FANTÔME
PAXKAL IRIGOYEN & KONTSUMO ORKESTRA
BIGOTT . LAISH . HOWDY SS.
LOS CHIMBEROS . ZAZPIAK BAT
MUSIQUE D'APERITIF
A SIDE B SIDE . MERKATUSO
HAURRENTZAKO TAILERRAK
GAZTETXEA
WWW.USOPOP.COM
eke · icb


AGORRILAREN 4,5 ET 6 AOÛT 2017
FestiLasai
BIARRITZ
#12
CONCERTS / GLISSE / STREET ART
PUPPETMASTAZ, BOHEMIAN BETYARS, ...
+ D'INFOS SUR FESTILASAIBIARRITZ.COM FACEBOOK.COM/FESTI.LASAI

## SAMEDI 20 MAI 16:00 MAIATZAK 20 LARUNBATA




# ROCK BATTLE #6

Le ROCK BATTLE se déroulera en plein air dans le superbe parc du «château» de l'IME Plan Cousut de Biarritz.
Vous assisterez à une représentation scénique de différents groupes de jeunes issus d'ateliers des écoles de musiques actuelles de la région.

La chorale de l'IME sera également à l'honneur.
Restauration et buvette sur place dès 16h pour le goûter.

ROCK BATTLE gertakaria kanpoan iraganen da, baina, oraingoan, Biarritzeko IME Plan Cousut gazteluko parke zoragarrian.
Eskualdeko gaur egungo musika eskoletako tailerretarik jalgi gazte talde ezberdinen emanaldiak ikusteko eta entzuteko aukera izanen duzue.

16:00etatik goiti, askariarentzat, jatekoa eta edatekoa izanen da.
IMEko abesbatza ere hor izanen da.

| gratuit urririk

*©Clarisse Bouyer*



# LUNDI 22 MAI 20:00 MAIATZAK 22 ASTELEHENA

# MO.RE *MOMENT RARE #3*
# ALMA

Présenté par **ATABAL**, **LE FESTIN NU**, **FRANCK CAZENAVE**-ek aurkezturik




***Participer à MO.RE... comme on ouvre un livre.***
*MO.RE est une parenthèse, un temps suspendu, telle la lecture d'un ouvrage sur le banc d'un jardin. Unique, ce rendez-vous propose une performance intimiste hors cadre, dans un lieu de littérature, en petit comité. MO.RE est également l'invitation à une véritable rencontre avec l'univers de l'artiste : tel un «journal intime», un espace dédié présentera pensées, goûts, écrits, photographies, dessins, ou souvenirs personnels de l'artiste...*
***Un moment simple, authentique... rare.***

**ALMA**
ALMA, ce n'est autre que le projet de Pete, le chanteur guitariste des Monsters Build Mean Robots.
On y retrouve donc cette voix caractéristique, des envolées épiques postrock, et ces mélodies toujours aussi envoûtantes, pour un résultat plus planant encore.

***MO.REn parte hartzea... liburu bat irekitzea bezala da.***
*MO.RE parentesia bat da, geldialdi bat; lorategi batean, aulki gainean, liburu bat irakurtzen delarik bezala. Paregabeko hitzordu honetan, talde batek kontzertua eskainiko du. Literatura leku batean, usaiako lekuetatik kanpo beraz, talde ttipian bildurik, performantze intimista izango da. Artistaren mundua ezagutzeko gomita luzatzen du MO.REk : « egunerokoa » bezalatsu, artistaren gogoetak, gustuak, idazkiak, argazkiak, marrazkiak edo oroitzapen pertsonalak aurkeztuko dituen gune bat izango da.*
***Momentu sinplea, benetakoa, arraroa.***

**ALMA**
Monsters Build Mean Robots taldeko kantari eta gitarristaren proiektu berria da ALMA. Pete kantariaren ahots zoragarria, post-rock goraldi epikoak, melodia liluragarriak eta gogo eramaile diren soinuak gozatuko dituzue.

INDIE

***- LIBRAIRIE LE FESTIN NU LIBURU DENDA -***

♥♥♥
*Sigur Ros*
*Monsters Mean Build Robots*

6€ unique bakarra
Toki kopuru mugatua 50 places limitées

# JEUDI 01 JUIN 19:00 EKAINAK 01 OSTEGUNA

# WAND

Présenté par **BOARDRIDERS ANGLET**, **ATABAL** & **MUSIQUE D'APÉRITIF**-ek aurkezturik




*Atabal et Boardriders Anglet s'associent une fois par mois pour vous proposer de la musique live au Boardriders d'Anglet. Un rendez vous gratuit avec le meilleur de la scène locale ou des groupes internationaux en tournée. Démarrage dès le 07 avril et gros rendez vous le 01 Juin avec Musique d'Apéritif et les californiens WAND.*

*Vendredi 07 Avril : Radiator (Rock Garage)*
*Vendredi 05 Mai : Kolinga (Afro Folk)*
*Jeudi 01 Juin : Wand (Psyché rock)*
*Jeudi 06 Juillet : Cassavettes (Indie Rock)*
*Vendredi 04 Août : Kepa (Folk Blues)*

**WAND**
Adoubé par Ty Segall himself, on (ne) vous présente (plus) WAND, LA référence psyché rock californienne du moment: des riffs de guitares lourds et saturés, la pédale de fuzz poussée au maximum, un chant sauvage et urgent et des rythmiques pied au plancher. Du bonheur quoi !

*Angeluko Boardriders dendan kontzertuen eskaintzeko, hilabetean behin, Atabalek eta Boardriders Anglet elkarteak bat egiten dute. Tokiko eszenako talderik onenen eta kontzertu biran diren nazioarteko taldeen ikusteko urririkako hitzordua izango da. Apirilaren 7an hasiko da. Ekainaren 1ean, Musique d'Apéritif elkartearekin antolaturik, Kaliforniako WAND taldea ikusteko parada izango duzue.*

*Apirilak 07 ostirala : Radiator (Rock Garage)*
*Maiatzak 05 ostirala : Kolinga (Afro Folk)*
*Ekainak 01 osteguna : Wand (Psyché Rock)*
*Uztailak 06 osteguna : Cassavettes (Indie Rock)*
*Abuztuak 04 ostirala : Kepa (Folk Blues)*

**WAND**
Ty Segall jaunaren onespena jaso duen Wand taldea Kaliforniako rock psikodelikoaren momentuko erreferentzia nagusia da. Gitarra riff astunak eta distortsionatuak, fuzz gitarra efektua, ahots basatia eta larria, erritmo bizi-biziak. Zoriona !

ROCK GARAGE

**- BOARDRIDERS ANGLET - 51 Av Jean Léon LAPORTE - ANGLET -**

*Ty Segall*
*Thee Oh Sees*

gratuit urririk

# Café Concert Kfe Kontzertua

## SAMEDI 03 JUIN 19:30 EKAINAK 03 LARUNBATA



ROCK

I gratuit urririk

# SOIRÉE CHAMPIONNAT DE FRANCE DE SKATEBOARD

## THE FROGS RUNNERS + CASSAVETTES

*Lassosalai Skate Club Biarritz organise avec la Commission Skateboard la dernière étape du Championnat de France de Skateboard 2017, les 03 et 04 Juin au Skatepark de Biarritz. Venez fêter ce gros event en musique à Atabal. Ekainaren 03an eta 04an, Biarritzeko Skateparkean, Lassosalai Skate Club Biarritz elkarteak Comission Skateboard elkartearekin batera 2017ko Frantziako Skateboard Txapelketaren azken atala antolatzen du. Atabalen, gertakari nagusi hau musikarekin goza ezazue.*

**THE FROGS RUNNERS** déversent un rock puissant qui se mêle sensuellement au garage et au punk avec un accent ultra groovy à faire remuer la patte arrière de votre chien ou la tête de votre grand-père ! Garage eta punk soinuekin uztarturik eta erritmo dantzagarriak gehiturik, THE FROGS RUNNERS taldeak rock indartsua jotzen du. Hala, taldearen musikak zure txakurra edo aitatxia dantzan jarriko du !

**CASSAVETTES** est la rencontre de 3 musiciens originaires des antipodes, Afrique du Sud, Argentine, France, qui récitent un rock énergique et profond. Le trio mélange des influences rock très diverses pour des créations uniques et riches en émotions. Hegoafrikatik, Argentinatik eta Frantziatik heldu diren 3 musikarien arteko topaketa da. Rock indartsua eta sakona jotzen dute. Rock eragin ezberdinak uztartzen ditu hirukoteak. Emozioz beteriko kantu bereziak sortzen ditu.

**+WARM UP & AFTER: DJ SKILLZ + DJ PACE**



# LUNDI 05 JUIN 20:00 EKAINAK 05 ASTELEHENA

# SWANS
## + LITTLE ANNIE






### SWANS

SWANS, groupe mythique américain emmené par Michael Gira, son leader charismatique, est l'un des groupes les plus importants et influents de la scène expérimentale américaine. Le combo new-yorkais n'a jamais dérogé à sa philosophie initiale, faite de singularité innée et d'absence totale de concessions. SWANS élabore une musique semblable à aucune autre, explore et défriche d'immenses territoires sonores – musique industrielle d'abord puis noise, post-punk, post-rock... Ils fouleront la scène d'Atabal pour la 1ère fois avec leur dernier album «To Be Kind».

### LITTLE ANNIE

La chanteuse new-yorkaise LITTLE ANNIE, connue aussi comme Annie Anxiety, est une artiste à part de la scène underground de ces quarante dernières années. Son dernier album «Trace» est un disque de jazz décalé où, comme une Billie Holiday postmoderne, Annie pose sa voix rauque et envoûtante.

### SWANS

SWANS, Michael Gira lider karismatikoak gidatzen duen Estatu Batuetako musika talde mitikoa da. Estatu Batuetako musika eszena esperimentaleko talde garrantzitsuenetarik bat da. New York hiriko taldeak hastapeneko filosofiari jarraitu dio beti. Jitezko berezitasuna adierazten du eta ez du deusetan ere amore ematen. SWANS taldeak beste nehorrek ez bezalako musika eskaintzen du. Soinu lurralde zabalak aztertzen eta lantzen ditu, musika industriala lehenik, eta, gero, noise, post-punk, post-rock musikak... «To Be Kind» azken diskoa aurkezteko, lehen aldikoz, Atabaleko oholtza gainean izango ditugu.

### LITTLE ANNIE

New York hirian bizi den kantaria da LITTLE ANNIE. Annie Anxiety izenarekin ezagutua da ere. Azkenengo berrogei urteetako underground eszenan, ohiz kanpoko artista izan da. «Trace» izeneko bere azken diskoan, jazz musika berezia entzun daiteke. Billie Holiday postmoderno baten gisara, Anniek ahots erlastu eta liluragarriarekin kantatzen du.

NOISE ROCK

♥♥♥
*Shellac*
*GodSpeed You Black Emperor*

19€ / 16€ (adh-kide) en loc-aurretik
22€ / 19€ (adh-kide) sur place-bertan

©Yoan Puissegur

MARDI 06 JUIN 20:00 EKAINAK 06 ASTEARTEA

# THE GROWLERS



**THE GROWLERS**

Ne cherchez pas, «City Club» ne se compare à aucun des albums de THE GROWLERS ! Voulant reprendre contrôle sur leur style New York-esque, Julian Casablancas, le célèbre chanteur de The Strokes a produit leur dernier album. Avec leur démarche arrogante et cool, chaque son a ce ton percutant qui rend leur musique encore plus excitante que leurs frasques du début. Le groupe se fraie un chemin dans la pénombre, entre confusion et occultation; une dimension qui nous rappelle ce groupe dont nous sommes tombés amoureux dans le passé.

**THE GROWLERS**

Argiki erran dezagun : THE GROWLERS taldearen «City Club» azken lanak ez du aitzineko diskoekin zer ikusirik ! New Yorkeko musika estiloa berreskuratzeko xedearekin, The Strokes taldeko Julian Casablancas kantari ezagunak «City Club» diskoa ekoiztu du. Jarrera harroputz eta lasaiarekin, taldearen gaur egungo musika hastapeneko zorakeriak baino kitzikagarriagoa eta zorrotzagoa da. Taldearen musikak ilunpean leku hartzen du, nahasmenduaren eta ezkutatzearen artean dantzan dabil. The Growlers-en musikak iraganean taldeaz maitemindu ginela oroitarazten digu.

SURF MUSIC

♥♥♥
*Allah Las*
*The Strokes*

13€ / 10€ (adh-kide) en loc-aurretik
16€ / 13€ (adh-kide) sur place-bertan

## VENDREDI 16 JUIN 19:00 EKAINAK 16 OSTIRALA




# ROCK ESKOLA SHOW

C'est le rendez-vous incontournable que propose les élèves de la Rock Eskola à leur public en jouant un répertoire travaillé tout au long de l'année en ateliers, chorale ou en groupe.

L'école de musique Atabal propose à l'année des cours de guitare, batterie, basse, DJ/MAO, initiation ou éveil musical et compte 180 élèves dès 3 ans.

Un concert épatant sur la grande scène !

Rock Eskolako ikasleek eskaintzen duten kontzertu saihetsezina da. Urte osoan, tailerretan, abesbatzarekin edo taldean landutako kantu zerrenda jotzen dute ikasleek.

Urte osoan, Atabaleko musika eskolak gitarra, bateria, baxua, DJ/OLM eta musikara lehen hurbiltze klaseak eskaintzen ditu. Hiru urtez goitiko 180 ikasle biltzen ditu.

Rock Eskolako ikasleek kontzertu zoragarria eskainiko dute !

I gratuit urririk

*©Clarisse Bouyer*




**SAMEDI 17 JUIN 21:00 EKAINAK 17 LARUNBATA**

# DJ SHADOW



**DJ SHADOW**

Les légendes ne meurent jamais dit le dicton, et DJ SHADOW le confirme avec brio.

Il y a vingt ans, l'artiste se taillait une place de choix dans le paysage populaire grâce à la sortie du désormais culte «Endtroducing».

Depuis, l'américain a su se rendre indispensable et apporter sa collaboration à de grands noms, jusqu'à s'imposer aujourd'hui comme un meneur de la scène hip hop, faisant du sampling sa spécialité.

En 2016, DJ SHADOW signe un 5ème album baptisé «The Mountain Will Fall», véritable pépite expérimentale et se produira pour la 1ère fois sur la scène d'Atabal !

**DJ SHADOW**

DJ SHADOW artistak besteen aurretik jarraitzen du, bizirik beti.

Duela hogei urte, «Endtroducing» disko mitikoari esker, DJ SHADOWren musika jende anitzen belarrietara heldu eta oso ezagun egin zen.

Ordutik, artista amerikarra saihetsezina bilakatu da. Izen handiko artistekin lan egin du. Hala, gaur egun, hip-hop eszenako lider nagusietarik bat da. DJ SHADOWren berezitasuna sampling teknika da.

2016an, DJ SHADOWk «The Mountain Will Fall» izeneko bosgarren diskoa argitaratu zuen. Zinezko harribitxi esperimentala da. Lehen aldiz, Atabaleko oholtza gainean agertuko zaigu !

ABTRACKT HIP HOP

@Lena Kauck

♥♥♥ *Cut Chemist*
*Rjd2*

25€ / 22€ (adh-kide) en loc-aurretik
28€ / 25€ (adh-kide) sur place-bertan

# Exposition Erakusketa

# NICOLAS CANU







**NICOLAS CANU**

Architecture et émotions, formes et sentiments, voilà quelques mots qui pourraient permettre de rentrer dans le monde pictural de NICOLAS CANU.

Il sait donner à ses paysages urbains, ses friches plus ou moins industrielles, la poésie des couleurs, l'harmonie des formes et des lignes géométriques. Mais limiter son travail à cette approche serait trop réducteur ; la place qu'occupe la nature n'est pas écartée, elle participe à l'ensemble pour offrir des paysages apaisants, colorés, presque familiers Sa peinture est une exploration de ces lieux à l'écart : ni tout à fait la ville, ni tout à fait la campagne et de l'individu cherchant l'équilibre entre urbanisation et nature.

Ces lieux peuvent être perçus comme le décor de scènes de cinéma, un art inspirant pour le peintre qui y assimile son imagerie.

Arkitektura eta emozioak, formak eta sentimenduak, horra hor NICOLAS CANUren irudi mundua ulertzera laguntzen gaituzten hitzak.

Hiri-paisaiei eta industria gune alfer utziei koloreen poesia, itxura eta lerro geometrikoen harmonia ematen dizkie. Baina, artista honen lan osoa horretara mugatzea arras murriztailea litzateke. Natura ez du baztertzen, osotasunaren parte da. Bazter lasaigarriak, koloretsuak eta ezagunak eskaintzen ditu.
Bere margolanak bazterreko leku horien ikerlanak dira. Ez dira arras hiriak, ez dira osoki baserrialdeak ere. Hirigintzaren eta izadiaren artean oreka bilatzen duen gizabanakoa irudikatzen dute.

Leku horiek zinemako eszena batzuen dekoratuak izan daitezke. Margolari honentzat, zinema inspirazio iturri nabarmena da. Arte honetako irudiak barneratu ditu.

**Exposition du Samedi 17 Juin**
**au mois de Septembre**
**Vernissage Samedi 17 Juin à 19h**
